

Usurbilgo Udala

2018KO OTSAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi dute: Xuban Zubiria Elexpek eta Carlos Perez Fraisolik.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko otsailaren 27an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/01/30EKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2018ko urtarrilaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO URTARRILAREN 22TIK OTSAILAREN 16RA (2018/0068-2018/0153).



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2018ko urtarrilaren 22tik otsailaren 16ra bitartean (2018/0068–2018/0153) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN HONDAKINEN GOI KUDEAKETA ZERBITZUGINTZAREN 2018 EKITALDIRAKO TARIFAK AUZIBIDEAN ERREKURRITZEA.

Alkateak adierazi du gai hau tratatu zela Antolakuntza batzordean baina ez zela diktaminatu, hori horrela hasteko gaia tratatu edo ez bozkatu dute.

Batzarkideek, puntu hau tratatzea berretsi dute aho batez.


Jarraian, alkateak gaiari buruzko azalpenak eman ditu. Aurretik jada landu diren oso antzeko gaien errepikapena dela esan du, 2017ko aurrekontuak ere modu berean errekurritu zirela dio. Kasu honetan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2017ko abenduaren 26ko Batzar Orokorrean onartu zituen 2018 ekitaldirako tarifak eta beraien iritziz tarifa horiek onartzeko erabili diren irizpideak ez dira legalak. Ez direla legalak dio, besteak beste, hor ezartzen direlako errefusaren kudeaketaren kostua, oso garestia gainera. Behin errefusaren kostu hori ezarrita, bio-hondakinari hobariak ezartzen zaizkiola azaldu du, %15etik %35etara bitartekoa, betiere bio-hondakinaren eta errefusaren arteko portzentaiaren arabera. Hau da, herri batek proportzioan bio-hondakin gehiago sortzen badu errefusa baino, orduan horri hobari handiagoa aplikatzen zaio.

Gobernu taldearen iritziz hau ez dela gauzak egiteko modua esan du, *de facto* lotzen duelako bio-hondakinaren kostua errefusaren kostuarekin. Bi zati oso desberdin izanda, legez kalkulu bat egin beharko litzatekeela dio; errefusaren kosturako, zerbitzu horrek eskatzen dituen kostu guztiak aintzat hartuta, eta beste horrenbeste bio-hondakinaren tarifarako, bio-hondakinaren tratamenduak eskatzen dituen kostuak kontuan hartuta. Hori horrela egiten ez den bitartean iruditzen zaie bio-hondakinaren kostua errefusarekin nahasten dela eta horrek gaiak ondo bereizten dituzten herriei sekulako kaltea eragiten diela.

Azaldutakoa kontutan hartuta, proposatzen dutena da aurten ere 2018ko tarifak auzibidean errekurritzea.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du aurrekoetan bezala iruditzen zaiela GHKn ez dagoela Usurbil bakarrik eta han erabakitzen direnak denek onartu beharrekoak direla.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du batzuetan badirudiela GHK kanpoko gauza bat dela, Usurbilek ez duela zerikusirik beraiekin, aurkari bat izango balitz bezala eta epaitegira goazela beraiekin borrokan egitera.



Usurbilgo Udala

Galdetu du ea GHKrekin hitz egin duten eta ze erantzun jaso duten eta ea Usurbil bakarrik dagoen goera honetan.

Arraroa egiten zaiola dio GHKko parte izatea eta era berean beraien aurka joatea.

Alkateak erantzun dio Usurbilgo Udala zeharka badela GHKren parte, baina ez direla kide zuzen, GHKren kide Mankomunitateak baitira. Beraz, Usurbilgo Udala San Marko Mankomunitateko kide den neurrian GHKko kide ere badela esan du.

Gai hau San Marko Mankomunitatean mahai gainean jarri dutela esan du, bertan azalduz ez zaiela legezkoa iruditzen nola egiten diren tarifen kalkuluak. Eman zaien erantzuna izan dela dio, "hori lasaiago hitz egin behar da, tratatu liteke aurrerago, ikusiko dugu...", hau da, debate horri San Marko Mankomunitatean uko egin zaiola salatu du.

San Marko Mankomunitatean beste herri batzuk ere badaudela dio gauza bera eskatzen dutenak.


Bere ustez badagoela dio interes eta erabaki garbi bat gai hau Mankomunitatean ez tratatzeko eta are gutxiago GHKn. Jarraian, horren zergatia azaldu du, hau da, kontsorzio edo mankomunitate bateko kide izan zintezke, baina gaur egun Gipuzkoan hondakinen kudeaketari begira postura oso kontrajarriak daudela adierazi du. Askotan barku berean daudela dio oso bide eta postura desberdinak dituzten kideak, eta horrek etengabeko talka bat ekartzen duela dio. Guzti horren atzean nahi garbi bat dagoela dio, hau da, eraikitzen ari diren erraustegiari bazka eman behar zaiola eta gainera horren kostua denon artean ordaintzea, ondo edo gaizki egin hondakinen kudeaketa.

Guzti honen aurrean posizionatzen direla esan du egiten dituzten bilera guztietan, eta legezkoa iruditzen ez zaienez, baita auzitara joanez.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du udal honetan Hondakinen Mahaia osatu zela, bertan Josune Urkolak ere parte hartu zuela, eta bertatik galdera zuzenak eta konkretuak egin zitzaizkiola San Marko Mankomunitateari. Bilerak ere egin zituztela eta han jasotako erantzunak izan zirenak izan zirela eta guztiak dakitela dio horren guztiaren atzetik zer dagoen, erraustegi hori finantzatu egin behar dela eta horretarako baldintza batzuk behar direla.

Oraindik ezin duela ulertu dio zenbait herritan %70-80a gaika biltzen aritu ondoren, orokorrean nola onartu dezakegun berriz ere %35-40a bueltatzea.

Nahiz eta tristea izan, auzitara jo beste biderik ez zaiela geratzen adierazi du.



Usurbilgo Udala

Jarraian, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren hondakinen goi kudeaketa zerbitzugintzaren 2018 ekitaldirako tarifak auzibidean errekurritzea erabaki dute alkatearen 2018ko otsailaren 19ko 2018/0158 dekretua gehiengoz berretsiz.

Honela dio aipatutako dekretuak:

“**XABIER ARREGI IPARRAGIRRE**, Usurbilgo Udaleko Alkate-Lehendakariak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1.k) artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorak 2017ko abenduaren 26ko bileran, 2018 ekitaldirako hiri hondakinen goi kudeaketa zerbitzuak eskaintzeko tarifak onartu zituela (2017ko abenduaren 29an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean).

Ebazpen hori kaltegarria dela udal honen interes eta eskubideetarako.

KONTUTAN HARTURIK

Batetik, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 21.1.k) artikuluan, eta Administrazioarekiko Auzialdiak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 48. eta hurr. artikuluetan xedatutakoa.

Bestetik, Sektore Publikoko kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarrian zehaztutako eskumena eta araudi bereko 138.3., 111. eta 23. atalen arabera Usurbilgo udalaren izenean aritzeko ordezkartzaren kontratazioa kontratu txikia dela.

ERABAKI DUT

LEHENA: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorak 2017ko abenduaren 26ko bileran hondakinen goi kudeaketa zerbitzugintzaren 2018 ekitaldirako tarifak onartuz hartutako ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztea udal honen interesak defendatzeko.

BIGARRENA: Yolanda Lopez de Luzuriaga Beltran de Heredia auzi honetarako abokatua izendatzea, prokuradoreen alde emanda dauden botere guztiak erabiliz udal honen izenean jardun eta udala defenda dezan.

HIRUGARRENA: Kontratu txiki honek eragindako gastua 2018ko aurrekontuko 1.1200.226.920.00.04 partidaren kontura joango da.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri izendatutako abokatuari eta kontu-hartzaileari ematea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- B-03. URKAMENDI-IARBE BIDEA HERRI BIDEKO 130 METROKO BIDE ZATIAREN DESAFEKTAZIOA.

Alkateak azalpenak eman ditu. Gai hau Hirigintza batzordetik diktaminatuta datorrela esan du.

Planteatzen dena da Urkamendi-larbe bidea herri bide izaerara egokitzeko espedienteari hasiera ematea.

1998 urtean bide horren lagapena egin zela esan du. Halere, gaur egun ikusten dela esan du, ingurumen teknikariaren txostenean ere hala jartzen duela dio, herri bide zati horrek ez duela jarraipen edo loturarik larbe baseritik harago eta, bestetik, erabiltzaile bakarrak larbe baserriko bizilagunak eta ustiatetik erabiltzaileak direla. Hori horrela, proposatzen dena da soberako lursail izendatzea eta horretarako espediente honi hasiera ematea.

Jarraian, irizpidearen puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.05/2009-0313

AURREKARIAK

Aginagako larbe baserriko DAMASO LIZASO AZKONBIETA jaunak egindako eskaerari erantzunez, Plenoak, 1998ko irailaren 29an zera erabaki zuen hitzez hitz:

12.- IARBE BASERRIAREN INGURUAN BIDE LAGAPENA ONARTZEA

Udalbatzak, aho batez, berea eginez, akordio mailara jaso du jarraian hitzez-hitz aipatzen den Hirigintza eta Obra-batzordearen diktamena:

“larbe baserri inguruan bide publikoaren hobekuntza lanak egiten ari direla aprobetxatuz, baserriraino doan bidearen hobekuntza egin da,



Usurbilgo Udala



bidearen zati bat ormigonatuz. Zati hori bide pribatua izanik ormigonatze lanak Udalaren gain joan dira, baina jabeak bidea uzteko konpromisua hartu eta gero.

Hori horrela, lagapenaren idatzia aurkeztu duenez larbe baserriko Damaso Lizaso Azkonobieta jaunak, gaia Zerbitzu, Ingurugiro eta Nekazaritza batzordean aztertu ondoren, proposatzen zaio Udalbatzari:

LEHENENGO: Ormigonatu berria den larbe baserriko bide zatiaren lagapena Udalak onartzea, zati horren mantenimenduaz herria arduratuko delarik.

BIGARREN: Zati hori erabilera publikora destinatzea eta horretarako jabearekin gauzatu behar den hitzarmena sinatzeko Alkateari behar adina ahalmentzea.”

Usurbilgo Udalak, lagatako bide hau Usurbilgo Herri bideen inbentarioan jaso du. Lagatako bidea, B-03. *Urkamendi-larbe bidea* herri bideko 130 metroko zatia da. Beraz lagatako bidea erabilera publikoari atxikita dago; jabari publikoko udal ondasuna da.



Usurbilgo Udalak, lagatako bidea hobetzeko eta mantentzeko hainbat inbertsio burutu ditu bertan azken urteotan. Udalak eskatuta, Eraiki S.L.U. enpresak 2009an lan hauen balorazioa egin zuen. Gaia aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2015eko maiatzaren 20an emandako txostenean, Udalak egindako inbertsio-kostuak 2.164,11 €-takoak izan direla zehaztu zuen.

LAGATAKO BIDEA BUELTATZEKO ESKAERA

Orain berriz, DAMASO LIZASO AZKONOBETA jaunak, Usurbilgo Herri bideen inbentarioko B-03. *Urkamendi-larbe bidea* herri bideko 130 metroko zatia, 1998an udalari lagatakoa, bere jabegora bueltatzea eskatu du.



Usurbilgo Udala

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2015eko maiatzaren 20an emandako txostena kontutan izanik, 1998an lagatakoa bidea bueltatzeko jardunbidea martxan jarri aurretik, udalak bertan egindako inbertsio-kostuak (2.164,11 €) bueltatu beharra jakinarazi zitzaion DAMASO LIZASO AZKONOBIEA jaunari.

Udal kontuhartzaitzak ziurtatu duenez, DAMASO LIZASO AZKONOBIEA jaunak 2016ko abenduaren 22an bueltatu zituen 2.164,11 €-ak. Beraz, 1998an lagatako bidea bere jabegora bueltatzeko jardunbidea martxan jarri behar da.

Lagatako bidea erabilera publikoari atxikita dago; jabari publikoko udal ondasuna da. Beraz, honen jabegoa DAMASO LIZASO AZKONOBIEA jaunari bueltatu aurretik, ezinbestean, erabilera publikoaz desfektatu beharko da, jabari publikoko ondasuna patrimonial bihurtuz.

Udal idazkariak, Garazi Etxeberria San Miguel andereak, gaia aztertu ostean honako txostena eman du:

Espedientea: HZ.05/2009.0313

Gaia: larbe baserrira doan herri bidearen izaera aldatzea eta beste zati bat konpontzeko baimena.

Aurrekariak

1998ko irailaren 29an egindako Udalbatza plenoak, besteren artean, larbe baserriko bide zatiaren lagapena onartu eta zati hori erabilera publikora destinatzea eta jabearekin hitzarmena sinatzea erabaki zuen. Lagatako bidea, B-03. Urkamendi-larbe bideko 130m., Usurbigo herri bideen inbentarioan jasota dago, erabilera publikora atxikita; jabari publikoko udal ondasuna da.

Damaso Lizaso Azkonabietak, aipatu bidearen jabegoaren itzulpena eskatu du, beste eskarien artean. 2015eko maiatzean interesatuari bide zatiaren jabegoa bueltatu aurretik, bertan egindako inbertsioa (2.164,11.-€) bueltatzeko eskatu zitzaion, Ibon Goikoetxea Retegi Nekazal eta ingurumen teknikariak emandako txostenaren arabera. Udal kontu-hartzaileak ordainketa eginda dagoela jasotzen duen ziurtagiria espedientean jasota dago.

Txostena

Prozeduran eman beharreko pausuak aztertzeko, eta 1174/1987 EDren 3a eta b artikulua ezarritakoarekin bat eginez ematen da honako txostena.

Aplikatu beharreko araudia honako hau da: Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia (TEOA) onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 ED.a eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.(TAOAL)



Usurbilgo Udala

Aztertzen ari garen kasuan, B-03. Urkamendi-larbe bideko 130m. horiek soberako lursail gisa hartu daitezke, espedientean jasotako dokumentazio eta txostenen ondorioz egoki irizten bada. Horrela, eta 1372/1986 ED.aren 115 artikuluari jarraiki, Udalean jasotako eskaerari erantzunez soberako lursaila alboko jabeari zuzenean sal dakioko:

"Las parcelas sobrantes a que alude el artículo séptimo serán enajenadas por venta directa al propietario o propietarios colindantes o permutadas con terrenos de la misma"

Aipatu 7. artikulua xedatutakoaren arabera, soberako lursailak dira, bai halen hedadura txikia, bai forma irregularra, edo bai kokalekua dela eta, erabilera egokia izateko gai ez diren Toki Erakundeak diren orube zatiak. Soberako lursailek, ondare ondasun kalifikazioa dute.

Herri bide zatia soberako lursail izendatzeko, kalifikazio juridikoa aldatzeko espedientea izapidetu beharko da, TEOAko 8. artikulua aurreikusten duen moduan. Ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeak, ondasun horren jaregitea ekarriko du, herri-jabariko ondasun izatetik ondare-ondasun izatera igaroz.

TEOAko 8.3 artikulua jasotzen du bestalde Toki Erakundearen ondarean jaregindako ondasunak sartzeari ez da gauzatuko ondasun horien harrera formala gauzatu arte, eta hori burutzen ez den bitartean, ondasun horiek herri-jabariko izaera mantenduko dute.

Ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatu eta soberako lursail gisa izendatzeko jarraitu beharreko prozedura honako hau litzateke:

1. Egokitasuna eta legezotasuna egiaztatzeko txostena: Udal zerbitzu teknikoek txostena igorriko dute, lursailaren egoera fisikoaren eta haren deskribapena jasoz, eta soberako lursaila dela arrazoitzen duen ezaugarriak adieraziz.
2. Espedientean orubearen titulartasuna egiaztatzen duten agiriak jasoko dira (jabetza erregistroan inskribatuta dagoenaren ziurtagiria; Idazkariak igorritako ziurtagiria)
3. Ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzeko eskumena, Korporazioko Udaltzako dauka. Horren inguruko erabakia hartzeko gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, TAOALeko 22.2..1 eta 47.2.n artikuluen arabera. Irizpenari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurreko informazio izapidea irekiko da, hilabetez, Udaletxeko iragarki taulan eta GAO-n iragarkia argitaratzen denetik. Interesatuak egoki irizten dituzten alegazioak auzerik ditzakete tarte horretan. Alegazioak aurkeztuko balira, horien inguruan zerbitzu teknikoek txostena egin beharko dute



Usurbilgo Udala

Udalbatzak behin betiko onarpena emango dio (alegazioei buruz egoki irizten dionarekin) horrela, bai lursailaren jaregiteari, balta soberako lursail gisa izendatzeari ere.

Bukatzeko, Ondasunen Udal Inbentarioan egin beharreko egokitzapenak eta Jabetza Erregistroari jakinarazpena egingo da.

Hau da idazkari honek esan beharrekoa, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2017ko urriaren 11ean
Garazi Etxeberri San Miguel
Udal idazkariak

Beraz, ezer baino lehen jabari publiko ondasunen desafekzioa burutu behar da Toki Entitateen Ondasunen gaineko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege-dekretuko 8. artikulua araberako.

Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2017ko abenduaren 16an, ondasuaren kalifikazio aldaketaren egokitasuna eta legezatasuna egiaztatzen duen txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

TXOSTENA

GAIA: larbe baserrira doan herri bidearen izaera aldatzea eta beste zati bat konpontzeko baimena
INTERESATUA: Damaso Lizaso
UDAL TEKNIKARIA: Ibon Goikoetxea Retegi
ESPEDIENTE ZBKIA.: HZ.05/2009-0313
DATA: 2017-12-06

AURREKARIAK


- Usurbilgo Udalbatzak, 1998ko irailaren 29an larbe baserriko bide zatiaren lagapena onartu zuen. Bide zati hori, herri bideen inbentarioan jasota dago.
- Interesatuak 2009ko uztailak 29an B-03 05 herri bidearen jabego itzulera eskatu zuen.
- Jabegoa itzultzeko, Udalak bertan egindako inbertsioa itzultzeko eskatu zion interesatuari, eta horrela egin du interesatuak 2.164,11 € ko ordainketa eginez.
- 2017ko urriaren 11an udal idazkariak jabegoa itzultzeko, herri bide zatiaren kalifikazio juridikoa aldatzeko jarraitu beharreko prozedura zehaztu du. Bertan herri bide zatia soberako lursaila dela arrazoitzea eskatzen da.

AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

JABEGOA ITZULTZEKO ESKATU DEN HERRI BIDE ZATIA HURRENGOA DA.



Usurbilgo Udala



Herri bide zati honen ezaugarriei dagokionez, azpimarratu behar da:

- Herri bide zati honek ez duela inolako jarraipen edo loturarik larbe baserritik haratago.
- Bere erabiltzaile bakarrak larbe baserriko bizilagunak eta ustiatetik erabiltzaileka direla.
- Ez lukela herri bide izaerarik izango, 1998. urtean Usurbilgo Udalbatzak ez baldin balu bere lagapena onartu.

Ondorioz, B-03 05 herri bidea, soberako lursail izendatzeko nahikoa arrazoi daudela ikusita, horrela izendatzea proposatzen dut.

Hau da teknikariak esan beharrekoa, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.


Ibon Goikoetxea Retegi
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: DAMASO LIZASO AZKONOBIAETA jaunak 1998an udalari lagatako bidea, B-03. *Urkamendi-larbe bidea* herri bideko 130 metroko bide zatia da desafektatzeko espedientea hastea, ondoren bere jabegora bueltatzeko.

BIGARRENA: Desafekzio espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkia Usurbilgo Udaleko iragarki ohelean ere jarriko da.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Gai-zerrendan hurrengo bi puntuen orden aldaketa egin da, gaiak tratatu ahal izateko ezinbestekoa baita.

5.- HILERRI BERRIAN EMAKIDAZ ESLEITUTAKO HILOBIA ALDATZEKO ESKAERA.

Jone Urdanpilletak gai honi buruzko azalpenak eman ditu. Hilerrri zaharra hustutzean, hilerrri berrian eskubide batzuk eman zirela gogorarazi du eta kasu honetan titularrari hilerrri berrian zegozkion hiru nitxoak oinordekoak jaso ditu, Maria Teresa Urkiola Bordak. Panteoi baten eskuineko nitxo bat eta ezkerreko bi izendatu zitzaizkion.

Bestalde, 9. lotean, beheko ezkerreko nitxo emakidan atera zela eta libre geratu zela adierazi du eta Maria Teresa Urkiolak aurretik eskatuta zuenez hiru nitxoak segidan izatea, eskaera onartzea proposatzen dela esan du. Onartuko balitz, eskuineko nitxo hori 10. loterako libre geratuko litzatekeela gaineratu du.

Amaitzeko, irizpidetako puntuak irakurri ditu.


Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2017-0375

Aurrekariak

2014ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran, Hilerrri zaharrean panteoiatarako partzelen emakida administratinoa erreskatatzeko proposamenaren baitan, 78. panteoiaren emakiduna JULIAN URKIOLA URROZ jauna onartu zen hilerrri berrian 3 nitxo zegozkioz. Maria Teresa Urkiola Borda anderea, Julian Urkiola Urroz jaunaren oinordekoa da eta panteoi horren erreskaterako eskubidea berak du. 3 hilobi jaso zituen, zehazki Sahatsa kalea 5eko 2. ezkerreko, 3. ezkerreko eta 3. eskumako. 2016ko azaroaren 14ean sinatu zen hitzarmena.

2017ko uztailaren 12an, 3. eskumako apala 1. ezkerreko aldatzeko eskaera aurkeztu zuen; horrela, 3 hilobiak elkarren segidan izango litzatekeela argudiatuz.



Usurbilgo Udala

Kontuan harturik

9. Iotean eskaini zirela azkenengo hilobiak emakidan. 2017ko irailaren 26ean amaitu zen lote horri dagokion prozedura, eta dagokion hitzarmen administratiboak sinatu.

Sahatsa kalea 5, 1 ezkerrean kokatutako hilobia hutsik gelditu zela prozedura horretan.

Araudi aplikagarria

- Hilerrri Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Arautegi Nagusia.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).
- Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak*.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.


Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak, 2018ko otsailaren 08an egindako bileran, alde batetik, Jone Urdanpilleta, Xabier Arregi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin eta bestalde, Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatuta irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Maria Teresa Urkiola Borda andereak egindako eskaera onartzea.

BIGARREN: Emakidaren hasiera data hitzarmen administratiboa sinatu zen data berean mantentzea. Erabaki hau sinatutako hitzarmenari erantsiko zaio.

HIRUGARREN: Sahatsa 5-3 eskuma hilobia hutsik eta emakidan emateko prest uztea, hala dagokionean.



Usurbilgo Udala

LAUGARREN: Erabaki honen berri esleipendunari, udal lantaldeko arduradunari, lurperatzaileari eta kontu-hartzaileari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- UDALAK HILERRI BERRIAN HILOBIEN GAINEKO ESKUBIDEAK ESLEITU AHAL IZATEKO LOTE BERRI BATEN ESKAINTZA (10. LOTEA).

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek gai-zerrendan sartzea berretsi dute aho batez.

Jone Urdanilletak azalpenak eman ditu. 9. lotea amaitu bezain pronto bi eskaera berri jaso zirela adierazi du.

Gaur onartzera doazena 10. lotea dela dio. Lote honetan eskaintzen diren hilobiak zeintzuk diren eta baldintzak zein diren zehaztu ditu.

Amaitzeko, irizpenaren puntuak irakurri ditu.


Jarraian, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2018-0067

Aurrekoak

1.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.1.d) eta 49 ataletan emandako ahalmenez baliaturik, Usurbilgo Udalak hilerrri berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen dituen Ordenantza Nagusia 2000ko irailaren 26an egindako bilkuran behin betikoz onartu zuen (2000ko azaroaren 16ko GAOn argitaratua).

Arautegi horrek bi aldaketa izan zituen. Bata kolunbarioak arautzeko egin zen. Plenoak 2002ko urriaren 29an onartu zuen aldaketa hasieraz eta jendaurrean jarri zuen. Iragarkia 2002ko abenduaren 4ean argitaratu zen GAOn. Jendaurreko epealdian alegaziorik egon ez zenez, aldaketa behin betikoz onartutzat jo zen.



Usurbilgo Udala

Bestea 2007ko irailaren 20ko GAO n argitaratu zen. Azken honetan Usurbilgo hilerri berrian lurperatzeko eskubidea nortzuk izango duten finkatzen da. Horretarako, arautegian artikulua berri bat sartu zen 12 zenbakiarekin eta honako testuarekin:

Usurbilgo hilerri berrian enterramendu aukera izango dute:

1.- Jatorriz Usurbilgoak direnak.

2.- Gutxienez 15 urtetan Usurbilen erroldaturik egon direnak.

3.- Usurbilen erroldaturik daudenak hiltzeko momentuan.

2.- Beste aldetik, lotez lote hilerri berriko panteoi edo hilobiak erabiltzeko eskubideak esleitzen joan da Udala dagokion espedientea izapidetu ostean.

Orain arte 9 lote eskaini dira eta honako esleipenak egin dira:

1. LOTEA

AIZPURUA URANGA, IGNACIO
ZALDUA ITURZAETA, MARIA JESUS
Sahatsa kalea, 9 (seiko hilobia)

AÑORGA GALARRAGA, ANGEL
Makala kalea, 12 (seiko hilobia)

ZALDUA ZALDUA, ELENA
Sahatsa kalea, 11 (seiko hilobia)


ARRUTI SANTAMARIA, ASCENSIO
LARZABAL URDANPILLETA, JUANA
Makala kalea, 10 (seiko hilobia)

MAYOZ ILLARRAMENDI, PEDRO MARI
ETXEBERRIA-BERREYARZA ZALDUA, LUCIA
Altzifrea kalea, 11 (seiko hilobia)

OLASAGASTI MUJIKA, FELIX
Makala kalea, 14 (seiko hilobia)

ARRUTI LIZASO, JOSE FRANCISCO
USTOA GARTZIARENA, LUISA
Altzifrea kalea, 13 (hiruko hilobia)
Eskuina

AIZPURUA URANGA, ANTONIO
Sahatsa kalea, 12 (seiko hilobia)



Usurbilgo Udala

ZALDUA ALTUNA, JOSE LUIS
URDAMPILLETA SANTA CRUZ, M^a ISABEL
Sahatsa kalea, 10 (seiko hilobia)

AIZPURUA ZALDUA, IÑIGO
INTXAUSTI URRUZOLA, NEKANE
Sahatsa kalea, 13 (seiko hilobia)

BORDA TORREGARAY, JOSE ANTONIO
Sahatsa kalea, 14 (seiko hilobia)

GARMENDIA ALBERDI, MARIA CARMEN
Altzifrea kalea, 13 (hiruko hilobia)
Ezkerra.
(Azken honek uko egin zion emakidari).

2. LOTEA

Luis Maria Lizaso Gaztelumendi eta Maria Jesus Urkiola Cestau
Altzifrea kalea, 9 (bi hilobi)

Joseba Ignacia Lizaso Peñagarikano
Altzifrea kalea, 9 (bi hilobi)

Juana Lizaso Peñagarikano
Altzifrea kalea, 9 (bi hilobi)

6 hilobi horiek panteoi berdinean

Nieves Irazusta Agote eta Aizpurua Irazusta Senideak
Altzifrea kalea, 10 (6 hilobiko panteoi bat)

Miren Arantxa, Itziar eta Angela Maria Vitoria Aranguren
Altzifrea kalea, 12 ezkerra (10. kalearen aldekoa)(3 hilobi 6ko panteoian)


3. LOTEA

Hirugarren lotea ere atera zuen Udalak dagokion espedientea izapidetu ostean. Espediente honen bitartez lau panteoi eskaini ziren emakida moduan emateko. Hala ere, lizitazio honetan eskaera bakarra aurkeztu zen. Hiru nitxo, hilobi osoaren erdia esleitu zitzaion honako Usurbildarrari:

Elena Martiartu Aranguren
Altzifrea kalea, 12 eskuina (3 hilobi 6ko panteoian)

Dena den, lote honen emakida ez da gauzatu.

4. LOTEA



Usurbilgo Udala

Laugarren lote honetan eskainitakoak honakoak izan ziren:

- Altzifrea kalea, 13ko 3 hilobi edo panteoi erdia
- Altzifrea kalea, 14ko 6 hilobi edo panteoi osoa.

Lehiaketan ez zen inor aurkeztu baina lehiaketa egin zenetik urtebete pasa baino lehen, eskaera bat jaso zen eta zuzeneko prozedura erabiliaz, honako esleipena egin zen:

ANGEL MAIZ LAZKANO, MARTIN ARRILLAGA MARTIN eta IZASKUN MAIZ LAZKANO senideak

Altzifrea kalea, 14 (6 hilobiko panteoi osoa)

Demanda berri baten aurrean txosten bat eskatu zitzaion udal aparejadoreari, emakida administratiboaren erregimenean lote berri bat eskaini aurretik hilerriko nitxoan okupazio maila jakitearren.

5. LOTEA

Beraz, 5. lote bat eskaintzeko aukera bazegoela ikusi zen eta Zerbitzu Batzordeak honako hilobiak eskaintzea proposatu zuen:

- Altzifrea kalea, 13 ezkerre (3 hilobi edo panteoi erdia).
- Altzifrea kalea, 7 (6 hilobiko panteoi osoa).
- Altzifrea kalea, 5 (6 hilobiko panteoi osoa).
- Altzifrea kalea, 3 (6 hilobiko panteoi osoa).

Prozedura baten ondoren, honakoak gertatu ziren esleipendun:

BURDEOS-ko SAGRADA Familiaren Kongregazioa

Altzifrea kalea, 7 (6 hilobiko panteoi osoa)

FRANCISACO SANTIAGO NIETO

Altzifrea kalea, 5 eskuina (hilobi bakarra 6ko panteoian).

6. LOTEA

6. lotean honako hilobiak eskaini ziren:


- Altzifrea kalea, 13 ezkerre (3 hilobi edo panteoi erdia)
- Altzifrea kalea, 5 (5 hilobi)
- Altzifrea kalea, 3 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Altzifrea kalea, 1 (6 hilobiko panteoi osoa)

Prozedura baten ondoren, honakoak gertatu ziren esleipendun:

ANA MARI ZUMETA ETXEBERRIA

Altzifrea kalea, 1 (6 hilobiko panteoi osoa)

MARIA LUISA ETXEBERRIA BERREIARTZA



Usurbilgo Udala

Altzifrea kalea, 3 (5 hilobi 6ko panteoian)

MIREN IONE REKONDO AIZPURUA

Altzifrea kalea, 3 (hilobi bakarra 6ko panteoian)

ANGELA IBARGOIEN ALZAGA

Altzifrea kalea, 5 ezkerre (hilobi bakarra 6ko panteoian)

7. LOTEA

7. lotean honako hilobiak eskaini ziren:

- Altzifrea kalea, 5 eskuina (2 nitxo)
- Altzifrea kalea, 5 ezkerre (2 nitxo)
- Altzifrea kalea, 12 eskuina (3 nitxo)
- Altzifrea kalea, 13 ezkerre (3 nitxo)

Prozedura baten ondoren, honakoak gertatu ziren esleipendun:

JOSE MARIA, FERNANDO eta ARANTZA ARRIOLA BERGARETXE anai-arrebak

Altzifrea kalea, 5 - esk. 2 (nitxo 1)

8. LOTEA

8. lotean honako hilobiak eskaini ziren:

- Altzifrea kalea, 5 - esk. 3 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 5 - ezk. 2 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 5 - ezk. 3 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 12 - ezk. 1 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 12 - ezk. 2 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 12 - ezk. 3 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 13 - ezk. 1 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 13 - ezk. 2 (nitxo 1)
- Altzifrea kalea, 13 - ezk. 3 (nitxo 1)

Prozedura baten ondoren, honakoak gertatu ziren esleipendun:

MIREN ARANTXA, ANGELA MARIA eta MARIA ICIAR VITORIA ARANGUREN

ahizpak


Altzifrea kalea, 12 - ezk. (3 hilobi 6ko panteoian)

Honela, Altzifrea kalea 12ko panteoi osoa, 6 hilobiak, Vitoria Aranguren ahizpei dagozkie.

9. LOTEA

9. lotean honako hilobiak eskaini ziren

- Altzifrea kalea, 5 eskuina (hilobi 1)
- Altzifrea kalea, 5 ezkerre (2 hilobi)



Usurbilgo Udala

- Altzifrea kalea, 13 ezkerria (3 hilobi edo panteoi erdia)
- Sahatsa kalea, 5 ezkerria (hilobi 1)
- Sahatsa kalea, 8 eskuina (3 hilobi edo panteoi erdia)
- Makala kalea, 2 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 6 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 8 (6 hilobiko panteoi osoa)

Prozedura baten ondoren, honakoak gertatu ziren esleipendun:

JOSE MARIA GUIASOLA USANDIZAGA

Altzifrea kalea, 13 - ezk. (3 hilobi 6ko panteoian)

FRANCISCO JAVIER PUERTAS GONZALEZ

Altzifrea kalea, 5 - ezk. (2 hilobi 6ko panteoian), (ezk. 2 eta ezk. 3)

BEATRIZ GORRITI ZULOAGA

Altzifrea kalea, 5 - esk. (hilobi bat 6ko panteoian), (esk. 3)

ANTONIA ALTUNA EZCURDIA

Sahatsa kalea, 8 - esk. (hilobi bat 6ko panteoian), (esk. 2)

KARMELE URDANPILLETA URDANPILLETA

Sahatsa kalea, 8 - esk. (hilobi bat 6ko panteoian), (esk. 3)

Oraingoa, 10. lotea

Demanda berriak izan dira eta Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 10. lotea ateratzea erabaki du. Oraingo lote honetan, eskaintzen diren hilobiak honako hauek dira:

- Sahatsa kalea, 5 eskuina (hilobi 1)
- Sahatsa kalea, 8 eskuina (hilobi 1)
- Makala kalea, 2 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa)

Prozedura

Emakidak ofizioz edo partikularren eskariaz jar daitezke martxan. Kasu honetan ofizioz egiten da baina hilobiak eskuratzeko dagoen demanda kontutan hartuz.

Hilobiak, **zeharkako kudeaketa erregimenean** eta **kontzesio bidez esleitu nahi dira**. Beste aldetik **jardunbide irekia** aukeratu da eta kontratuaren ezaugarriak kontutan izanik, esleipena **zozketa** bidez egingo da.

Horretarako hilobien eskubideak esleitzeko bete beharreko Lege, Ekonomi eta Administrazio Baldintzen Orriak prestatu dira. Egingo den jardunbidearen ondoren esleipen-hartzaile gertatzen diren lagunei eraikitako hilobien gaineko eskubideak emateko modua arautzen da baldintza orriotan.



Usurbilgo Udala

Baldintza horietan xedatutakoaren arabera, emakidak gehienez 50 urte iraungo du, esleipena formalizatu eta dagokion kanona ordaintzen denean hasten delarik hilobien erabilera. Udalak hala erabaki zuelako onartutako Ordenantzan.

Hilobiek erabilera pribatua izango dute baina Jabetza eskubidea kasu guztietan salbu gelditzen da, herri jabetzako ondasunak direlako.

Emakidan emango den hilobi bakoitzaren prezioa **2.590€**koa da, (6ko panteoi osoak **15.540€**ko prezioa du), Udal honek onarturiko 2018ko Ordenantza Fiskalekin bat etorritz.

Edozein kasutan, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedaturikoa jarraituz eta azaroaren 3ko 33/2003 Administrazio Publikoen Patrimonioaren Legeko 93. artikulua eta ondorengoetan jasotakoaren arabera esleituko da emakida.

Atal horretako 93. artikuluan, honela xedatzen da:

- *El otorgamiento de concesiones sobre bienes de dominio público se efectuará en régimen de concurrencia. No obstante, podrá acordarse el otorgamiento directo en los supuestos previstos en el artículo 137.4 de esta Ley, cuando se den circunstancias excepcionales, debidamente justificadas, o en otros supuestos establecidos en las leyes.*
- *Cualquiera que haya sido el procedimiento seguido para la adjudicación, una vez otorgada la concesión deberá procederse a su formalización en documento administrativo.*
- *Las concesiones se otorgarán por tiempo determinado. Su plazo máximo de duración no podrá exceder de 75 años, salvo que se establezca otro menor en las normas especiales que sean de aplicación.*
-

Araudi aplikagarria

- Hilerrri Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Arautegi Nagusia.
- Hilerrri berriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko Lege, Ekonomi eta Administrazio Baldintzen Orri bereziak. Jardunbide hau arautuko dutenak.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).
- Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.



Usurbilgo Udala

- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak* izango dira indarrekoak.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.

Beraz, guzti hori ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Hilerrri berriko hilobien [Sahatsa kalea, 5 eskuina (hilobi 1), Sahatsa kalea, 8 eskuina (hilobi 1), Makala kalea, 2 (6 hilobiko panteoi osoa), Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa)] **esleipenerako eta kontratazio-espeditentza izapidetzeko** Usurbilgo Udaleko organoak duen ahalmena onartzea eta beregain hartzea, zeharkako kudeaketa erregimenean, emakida administratiboaren jardunbidea martxan jarriaz.

BIGARREN: Aipatutako hilobien eskubideak EMAKIDA ADMINISTRATIBOAREN bidez esleitzeko jardunbidea arautuko duten KLAUSULA JURIDIKO EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO BEREZIAK, ONARTZEA.

HIRUGARREN: Lizitaziorako espeditentza irekitzea eta eskabideak aurkezteko deialdia egitea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera eta egunkarietara bidaliz. Lehiaketan parte hartzeko eskabideak, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egun iragan baino lehen aurkeztu beharko direlarik.”

Honela izan da bozketa:


Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- JIEL JAUNAREN AURKAKO ZIGOR JARDUNBIDEA.

Jone Urdampilletak azalpenak eman ditu. Zerbitzuetako batzordean luze eta zabal hitz egin zutela gai honi buruz eta bertan diktaminatu zela esan du. Gertatutakoa arau hauste larritzat jotzen dela adierazi du. JIEL jaunak bere momentuan alegatu zuela eta Udaltzaingoak bere txostenean aurkeztutako alegazioa ezeztatu egin zuela aipatu du eta gerora eman zaion aukeran ez duela alegaziorik aurkeztu azaldu du.

Arau hauste larria denez, plenoak onartu behar duela esan du.



Usurbilgo Udala

Jarraian, irizpenaren puntuak irakurri ditu.

Idazkariak argitu du zigor espedienteak 6 hilabetetara iraungitzen direnez, espedientea iraungi dela dio baina ez arau haustea, urtebetera preskribatzen baita. Hori horrela zigor prozedura berriz martxan jarriko dutela gaineratu du.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2017-0291

Aurrekariak

2017ko uztailaren 26ko zinegotzi delegatuaren 2017/0786 dekretua eta hura zuzentzen duen abuztuaren 10eko 2017/0841 dekretu bidez JIEL jaunaren aurkako HZ.08/2017-0291 zigor jardunbideari hasiera eman zitzaion.

2017ko abuztuaren 21ean jakinarazi zitzaion JIEL jaunari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanaz jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi iriztitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzan. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

2017ko irailaren 8an JIEL jaunak alegazioak aurkeztu zituen, eta 2017ko irailaren 15ean Udaltzainburuak alegazioa aztertu eta dagokion txostena eman zuen, hura ezetsiz.

2017ko urriaren 24an jaso zuen JIEL jaunak zigor proposamena; 2/1998 Legeko 39. artikuluari jarraiki, 15 egunetako epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.


Ikusirik

Espedienteari hasiera eman zion udaltzaingoaren txostenaren arabera, gertaera 2017ko maiatzaren 30ean jazo zela, eta arau hauste larritzat jotzen dela.

Zigor espedienteari 2017ko uztailaren 26an emandako dekretu bidez eman zitzaiola hasiera.

Kontutan harturik

Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak 43 artikuluan honako hau jasotzen du: “*Jardunbidea hasi eta hurrengo sei hilabeteko epean ebazpena jakinaraziko ez balitz, ebazpen hori iraungita geratuko litzateke 30/1992 Legeak ezartzen duen moduan*”. Beraz, dagokigun kasuan prozedura iraungita legoke.



Usurbilgo Udala

30/1992 legea 39/2015 eta 40/2015 legeek ordezkatu dute. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 95. artikuluan honako hau jasotzen du:

“3. Prozedura iraungitze hutsak ez du besterik gabe ekarriko partikularren edo Administrazioaren akzioak preskribatzea, baina prozedura iraungiek ez dute geldiaraziko preskripzio-epearen zenbaketa.

Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hasteko aukera ematen duten kasuetan, prozedura horri gehitu ahal izango zaizkio iraungitzea gertatu ezean edukia berdin mantenduko zuten egintza eta izapideak. Prozedura berrian, betiere, bete beharreko izapideak izango dira alegazioak, froga-proposamena eta interesdunari entzunaldia ematea”

Arau hauste larriak, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren 35. artikulua araberan, arau-hauste egunetik kontatzen hasita urtebetera preskribatuko dute. Beraz, aztertzen ari garen kasuan, arau haustea ez dago preskribatuta.

Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2018ko otsailaren 08an egindako bilkuran, alde batetik Jone Urdanpilleta, Xabier Arregi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin eta bestalde, Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: JIEL jaunaren aurkako HZ.08/2017-0291 zigor jardunbidea iraungitzat ematea, 2/1998 Legeak eta 39/2015 legeak jasotakoaren baitan. Kontutan izan, udal ordenantzaren 35. artikulua araberan, arau-haustea ez dela preskribatu.

BIGARRENA: Interesatuari, zigor prozedura abian jarri zuen organoari eta prozedurako idazkari eta instruktoari hartutako erabakia jakinaraztea.”


Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- JMIM JAUNAREN AURKAKO ZIGOR JARDUNBIDEA.

Jone Urdanpilletak aipatu du aurrekoaren egoera berbera dela. Hemen ere arau hauste larri bat dagoela tarteko eta prozedura berdina izango litzatekeela esan du.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2017-0292

Aurrekariak

2017ko uztailaren 26ko zinegotzi delegatuaren 2017/0787 dekretua eta hura zuzentzen duen abuztuaren 10eko 2017/0840 dekretu bidez JMIM jaunaren aurkako HZ.08/2017-0292 zigor jardunbideari hasiera eman zitzaion.

2017ko abuztuaren 17an jakinarazi zitzaion JMIM jaunari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanaz jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi iritzitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzan. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

2017ko irailaren 1ean JMIM jaunak alegazioak aurkeztu zituen, eta 2017ko irailaren 15ean Udaltzainburuak alegazioa aztertu eta dagokion txostena eman zuen, hura ezetsiz.

2017ko urriaren 26an jaso zuen JMIM jaunak zigor proposamena; 2/1998 Legeko 39. artikuluari jarraiki, 15 egunetako epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Ikusirik

Espedienteari hasiera eman zion udaltzaingoaren txostenaren arabera, gertaera 2017ko maiatzaren 30ean jazo zela, eta arau hauste larritzat jotzen dela.

Zigor espedienteari 2017ko uztailaren 26an emandako dekretu bidez eman zitzaioela hasiera

Kontutan harturik

Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak 43 artikuluan honako hau jasotzen du: “*Jardunbidea hasi eta hurrengo sei hilabeteko epean ebazpena jakinaraziko ez balitz, ebazpen hori iraungita geratuko litzateke 30/1992 Legeak ezartzen duen moduan*”. Beraz, dagokigun kasuan prozedura iraungita legoke.

30/1992 legea 39/2015 eta 40/2015 legeek ordezkatu dute. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, 95. artikuluan honako hau jasotzen du:

“3. Prozedura iraungitze hutsak ez du besterik gabe ekarriko partikularren edo Administrazioaren akzioak preskribatzea, baina prozedura iraungiek ez dute geldiaraziko preskripzio-epearen zenbaketa.



Usurbilgo Udala

Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hasteko aukera ematen duten kasuetan, prozedura horri gehitu ahal izango zaizkio iraungitzea gertatu ezean edukia berdin mantenduko zuten egintza eta izapideak. Prozedura berrian, betiere, bete beharreko izapideak izango dira alegazioak, froga-proposamena eta interesdunari entzunaldia ematea”

Arau hauste larriak, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren 35. artikulua arabera, arau-hauste egunetik kontatzen hasita urtebetera preskribatuko dute. Beraz, aztertzen ari garen kasuan, arau haustea ez dago preskribatuta.

Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak 2018ko otsailaren 08an egindako bilkuran, alde batetik Jone Urdampilleta, Xabier Arregi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin eta bestalde, Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: JMIM jaunaren aurkako HZ.08/2017-0292 zigor jardunbidea iraungitzat ematea, 2/1998 Legeak eta 39/2015 legeak jasotakoaren baitan. Kontutan izan, udal ordenantzaren 35. artikulua arabera, arau-haustea ez dela preskribatu.

BIGARRENA: Interesatuari, zigor prozedura abian jarri zuen organoari eta prozedurako idazkari eta instruktoreari hartutako erabakia jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- MOZIOA: SEXU-ERASOEN AURKAKO APP BAT SORTZEA.

Fermin Orue-Echevarriak azaldu du martxoaren 8a datorrela-eta, mozio hau aurkeztu zuela non eskatzen den Udalak sexu-erasoen aurkako APP bat sortzea Eudel-en bitartez.

Antolakuntza batzordean EH Bilduk esan zuela dio udaletxe honetan bazegoela holako egoeratarako protokolo bat jarrita eta komeni zela Udaltzaingoarekin, Berdintasuneko batzordearekin eta mugimendu feministako elkartearekin hitz egitea beraien iritzia kontutan hartzeko. Horrela, hiru hilabeteko epean balorazio bat egin ahal izateko eta ikusteko ea APP hori martxan jartzea komeni zen edo ez.



Usurbilgo Udala

Aipatutakoa kontutan hartuta, mozioaren testua aldatu egin zela eta modu honetan geratzen dela esan du:

“1.- Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du EUDELekin koordinatuta gure udalerrian sexu-erasoen aurkako aplikazioari (APP) buruzko informazioa eskuratzeko, parekidetasun sailarekin eta mugimendu feministako kideekin koordinatu eta lantzeko, eta egoki ikusten bada, APPa ezartzeko hiru hilabetetako epean.

2.- Era horretan, sexu-eraso oro denbora errealean salatu eta eraginkortasun handiagoarekin eta bizkorrago jardun ahal izango da, eta, horri esker, horrelako delituak saihestu ahal izango dira.”

Alaitz Aizpuruak adierazi du APP ezarri baino lehen eskatu zutela informazioa bildu ahal izatea, aplikazio hori zertan den eta zer eskatzen duen ikusteko eta protokoloan nola txertatzen den ere komeri dela jakitea gaineratu du.

Eskatzen duten hori Eudelek berak ere esaten duela adierazi du. Aipatu du Berdinsarea Eudeletik Parekidetasuneko departamenduak koordinatzen dituen sarea dela eta Eudelek bere zirkularrean esaten duen hau aipagarria dela dio: “Ekimen honi buruz erabaki bat hartu ahal izateko eta udalerrien ezaugarrietara nola moldatu aztertzeko Eudel tresna horren funtzionamendurako beharrezkoa den informazioa biltzen ari da. Baita udalerrri bakoitzean inplementatzeak eskatzen dituen koordinazio beharrak ere.”


Beraz, APP hori existitzen dela dio, Durangon sortu zela, eta herri askok interesa agertu dutela eta Eudelek bere esku hartu duela dio inplementazio hori nola egin daitekeen aztertzea.

Beraz, eskatutako aldaketa egokia dela uste dute eta Eudelekin harremanetan egongo direla gaineratu du.

Batzarkideek, 2018ko otsailaren 19ko Antolakuntza Batzordearen tratatu zen mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

Justifikazioa.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eta Emakundek argitaratu dituzten eta eskuragarri dauden datuen arabera eta behin betiko datuak itxi bitartean egiazta daitekeenez, nabarmen egin du gora sexu-erasoengatiko salaketan eta arrazoi beragatik epailearen esku geratu diren pertsonen kopuruak. 2017ko lehen bederatzi hilabeteetako datuak 2016ko aldi bereko datuekin alderatuz gero, igoera % 36,36ra iritsi dela ikusiko dugu. Hortaz, Euskadin bi egunean behin salatzen da sexu-eraso bat. Horrek guztiak kezkatu egin behar gaitu, eta administrazio publikoek eta, oro har, gizarteak erantzun egin behar dute. Emakumeek jasaten dituzten erasoak geldiarazteko jardun beharra dago, eta horrek erabateko lehentasuna izan behar du guztiontzat, baita gure ekintza publikoaren barruko jardun nagusien xede ere. Ildo



Usurbilgo Udala

horretan, eremu guztietan jardun beharra dago, gure lurraldeko emakume eta nesken segurtasuna bermatu ahal izan dadin eta emakumeak eta neskek gure lurralde eta udalerrietako kaleetan askatasun osoz eta beldurrik sentitu gabe ibili ahal izan daitezen.

Duela gutxi, hainbat ekimen jarri dira abian Euskadiko herri batzuetan. Haien artean, azpimarragarria iruditu zaigu mugikorretarako app baten bidez teknologia berriak aplikatzeko aukera bat. Emakumeek indarkeria matxistari aurrea hartzeko neurri gisa pentsatuta dago, baina lapurretei aurrea hartzeko eta aisia-gauetan neska nerabeen segurtasuna areagotzeko ere balio dezake. Izan ere, neska nerabeek mutilen segurtasun-maila bera izan behar dute kalean ibiltzen direnean.

Ezarri zenetik, ekimen horrek oso eragin positiboa izan du herritarrengan, eta EUDELera iritsi da, euskal udal guztietan aplika dadin.

Hori guztia dela eta, ahaleginak batzeko eta sexu-erasoei hobeto aurre egiteko, Usurbilgo Udala honako mozioa onartu du:

MOZIOA

1.- Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du EUDELekin koordinatuta gure udalerrian sexu-erasoen aurkako aplikazioari (APP) buruzko informazioa eskuratzeko, parekidetasun sailarekin eta mugimendu feministako kideekin koordinatu eta lantzeko, eta egoki ikusten bada, APPa ezartzeko hiru hilabetetako epean.

2.- Era horretan, sexu-eraso oro denbora errealean salatu eta eraginkortasun handiagoarekin eta bizkorrago jardun ahal izango da, eta, horri esker, horrelako delituak saihestu ahal izango dira.”


Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- MOZIOA: MERKATARITZA-GUNE HANDIAK ETA LURRALDE-PLAN SEKTORIALA.

Alkateak azaldu du mozio honen hasieran aipatzen dela merkataritza-gune handiek duten garrantzia gure lurralde antolamenduan eta orokorrean gure bizi ohituretan. Halaber, esaten dela dio azken aldian gero eta gehiago entzuten eta ikusten ari garela gure inguruan gero eta proiektu gehiago ari direla martxan jartzen, kasu batzuetan lehendik dauden guneak handitzeko eta beste kasu batzuetan berriak egiteko.



Usurbilgo Udala

Jasotako datuekin estimazio bat egin dela eta ikusten dela dio 155.000 m²ko handitze bat gertatuko litzatekeela Donostialdea bezala ezagutzen dugun eskualdean. Horrek beraien ustez ingurua komertzioari orientatutako korridore handi bat bihurtzen du.

Bestalde, mozioan esaten dela dio merkataritza guneak handitzeko joera hori nahiko kontraesanean datorrela mundu mailan ikusten ari garen beste joera batzuekin. Denok jabetzen garela dio merkataritzaren moldeak aldatzen ari direla, duela 20-30 urte bazirudiela esan du merkataritza guneek dena hartu behar zutela, baina gaur egun ikusten da ohitura hori ezarri zen lekuetan kasik merkataritza gune klasiko horiek bidea irekitzen ari zaizkiela beste ohitura batzuei, esate baterako, online merkataritzari. Oso garai aldakorrean bizi garela eta ikuskizun dagoela dio zenbateraino merkataritza-gune eredu klasiko horrek aurrera egingo duen.

Oso deigarria egiten zaiela adierazi du inguru honetan halako demanda eta presazko tramitazio pila egotea. Hori horrela izanik ikusten dutena da inoiz baino beharrezkoagoa dela merkataritza, kontsumo eta bizi ohiturak zaintzea eta, halaber, gure herrietako izaera babestea.

Jaurlaritzan plan sektorial bat badagoela eta horren aurrerakina publiko egin dela, eta horrek gogoeta bat ekarri duela adierazi du. Horrela, Udalbatzari lau puntu dituen eskaera bat egiten diola EH Bildu udal taldeak esan du eta puntu horiek irakurri ditu.

Amaitu du esanez lehenengo eta hirugarren puntuak Udalari jartzen zaizkion lanak direla.

Josune Urkolak adierazi du honi buruzko informaziorik ez zuenez, batzordean abstenitu egin zela. Baina aztertzen egon ondoren, bigarren puntuarekin ez daudela ados esan du, izan ere uste baitute martxan dauden tramitazioak ezin dituela udal honek geldiarazi.

Alaitz Aizpuruak esan du, batetik, Usurbilen ere HAPOa martxan dagoenean, aurreko Arau Subsidiarioaren aldaketak ez direla tramitatzen HAPOa definitu arte, eta hori ohikoa dela hirigintzan. Bestetik, hemen eskatzen dena aldaketak ez tramitatzera dela dio.

Gaineratu du zenbait tramitaziok indarrean dauden arauak aldatzea eskatzen dutela. Ondorioz, zehazki eskatzen dena da ordenazio orokor hori egin arte aldaketa horiek ez ematea.

Josune Urkolak zehaztu du guzti honek badakitela zenbat denbora eskatzen duen eta agian zenbaitetan ezin dela horrenbeste denbora itxaron.

Fermin Orue-Echevarriak esan du batzordean aipatu zela Urbilek handitzeko plana duela eta horren harira email bat jaso duela udaleko helbidean Urbileko gerentearena



Usurbilgo Udala

non esaten duen *“hemos visto que el próximo 27 de febrero se va a celebrar un pleno municipal y entre los puntos del orden del día se ha incluido una moción en la que se va a hablar de la solicitud de ampliación del centro comercial Urbil que planteamos al Ayuntamiento hace unos meses”*. Ferminek esan du udal taldeak batzordean aipatu zuela txosten bat zegoela, baina ez zegoela eskaera bat.

Alkateak argitu du Urbilekoekin elkarrizketa batzuk izan dituztela eta hauetan anpliazio gogo bat azaldu zutela. *“Solicitud”* esaten dutenean zer esan nahi ote duten galdetzen du, zeren *“una petición formal de ampliación”* ez baita egon. Gaur egun arauak Urbilen anpliaziorik ez dutela baimentzen zehaztu du. Beraz, gaur egun Urbilek Ferminek esan dituen terminotan eskaera aurkeztuko balu, erantzuna *“ez”* izango litzatekeela dio, eremu horren fitxa urbanistikoak ez baitu bolumen gehiagoren erabilpena onartzen, eta hori Urbilek badakiela dio.

Beste kontu bat dela dio Urbilek etorkizunari begirako asmoen eta gogoen berri ematea Udalari eta esatea etorkizunean anpliatzea gustatuko litzatekeela. Batzordean komentatu zuen bezala, hori gainera udalaren eskutitz baten ondorioz etorritako kontua dela dio, eskatu zielako HAPOa berritzera zihoazenez beraien beharren eta eskakizunen berri jasotzea, akaso kasuren batean HAPOan hori aurreikusi zitekeelako.

Alkateak esan du Ferminek aipatu duen emaila ere jaso zuela eta erantzun egin ziola gerenteari esanez gaur hemen ez zutela beraien eskaerari buruz hitz egingo. Mozio honetan ez dela Urbil aipatzen gaineratu du.

Honakoa planteamendu orokorra dela dio, zer merkataritza eredu nahi dugun, ez Usurbilen, baizik eta Donostialdean edo Gipuzkoan. Honen aurrean beraien posizionamendua dela dio sektore hori nahiko egonkortuta zegoen garaian bat-batean bigarren olatu handi bat etorri dela eta erabat hankaz gora jarri behar dituela orain artean nolabait oreka lortutako kontuak. Desoreka horrek denoi egingo digula kalte uste du, baita merkataritza-gune handiei, merkataritxikiei eta herrietako bizitzari ere, zeren eredu honek proposatzen duen gauzetako bat da bizitza soziala gune horietara eramatea.

Hau guztiagatik eta gaia serioa denez, Jaurlaritzari eskatzen diote neurriak har ditzatela, eta ez diezaiotela bide eman gaur egunean dituztenei harik eta hausnarketa serio bat egin arte.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen hausnarketa horretan garrantzitsua dela denek denbora bat hartzea horretarako, presakako kontuak albo batetara utziz.

Mirari Azurmendik adierazi du, alkateak presazko kontua aipatu duela-eta, ez duela ondo ulertzen ze presaz ari den, zeren Udala bera jarri baita Urbil eta gainontzekoekin harremanetan HAPOaren idazketari lotuta eta hauek beraien beharren berri eman badute, hori bidezkoa ikusten duela esan du.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio, hasteko, Urbilek egin duen eskaerari buruzko baloraziorik ez duela egin. Horri buruz hitz egiten eta hausnartzen ari direla eta erabakia hartzeko momentua iritsiko dela esan du, eta hori Urbileko gerenteak badakiela gaineratu du.

Kontua dela esan du Garberak bere anpliazioa martxan jarri zuenean, hor ja astindu bat gertatu zela. Hortik hasita, urte askoan merkataritza-gune handien proposamenik mahai gainean egon ez denean, bat-batean agertzen dira El Corte Inglés Donostia, Mercadona, Ilunbe, Garbera, Zaldunborda, halako boom bat gertatu dela uste du eta horri deitzen diola presa zehaztu du.

Eskaeren ugaritze bat egon denez, iruditzen zaie beharrezkoa dela esatea “stop, goazen gauza honi neurria hartzera, goazen planteamendu egoki bat egitera, ikuspegi sektorial batetik eta lurralde ikuspegitik, eta ez herri ikuspegitik”. Hori horrela, lanketa udalaz gaindikoa izan dadila eskatzen dutela adierazi du.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du mozioarekin ados dagoela, baina jaso zuen korroea ikusita argitu egin nahi zuela.

Alkateak argi geratzeko berriz ere errepikatu du Urbilekoek ahoz esan diela handitu egin nahi dutela eta Udalak bere ordenamenduan handitzeko aukera ematea nahi dutela. Gaineratu du kontsulta bat egin dutela, badakitelako momentu honetan arauetan hori ez dela posible. Aldiz, Udalak baiezkoa emango balie, egin beharko luketena da proiektu batekin eskaera formal bat egin.

Batzarkideek, 2018ko otsailaren 19ko Antolakuntza Batzordearen tratatu zen mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Gure lurraldearen antolamenduan berebiziko garrantzia dute merkataritza-ekipamenduek. Sektore estrategikoa da, ekonomiari bete-betean eragiten diona, eta gure kontsumo- eta bizi-ohiturak errotik baldintzatzen dituena.

Azken aldian maiz iristen zaizkigu merkataritza-gune handiei buruzko albisteak. Gune berrien proiektuak nonahi sortu dira. Donostia inguruan, ekialdetik mendebaldera, ez dira gutxi proposatu diren egitasmoak: Zaldunborda, Ilunbe, Garbera, Belartza, eta beste hainbat. Gutxi gorabeherako estimazioa eginda, esan daiteke horiek gauzatzu gero beste 155000 m² gehiago okupatuko lirakekeela merkataritza-gune handietarako. Donostialdea, de facto, korridore komertzial handi bat bihurtuko litzateke.

Paradoxikoki, handitzeko joera hori ez dator bat mundu zabalean, eta guregandik gertu ere, nabarmentzen den ereduaren krisiarekin. Gaur egun, merkataritza-guneak ixten ari dira. Joera orokorra da, bestelako eredu batzuek (bereziki online merkataritzak) hartu duten indarrarengatik.



Usurbilgo Udala

Egoera honetan, proiektu berri ugarien presakako tramitazioek desestabilizazioa ekarri dute. Inoiz baino beharrezkoagoa da sektorea erregulatzea, udalez gaindiko planifikazioa, eta neurritz kanpoko handitze-eskaera horiei muga jartzea. Inoiz baino beharrezkoagoa da merkataritza-, kontsumo- eta bizi-ohiturak zaintzea, eta gure herrietako izaera, erro sakonak dituen, babestea.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztua du “*Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa Eta Merkataritza Ekipamenduak Sortzeko Lurralde Plan Sektorialaren Berrikuspen Partzialaren Aurrerakina, Merkataritza-Gune Handien Antolamenduari Dagokionez*” izeneko dokumentua. Dokumentu horrek aukera eman behar luke merkataritza-guneen ugaritzea eta handitzea arautzeko eta doitzeko, udalerriz gaindiko ikuspegi batetik.

Horrenbestez, Usurbilgo Udaleko Udalabatzarrak honako puntu hauek onartu ditu:

1- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztu duen merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko aurrerakinaren azterketa eta berrikuspena egingo du Usurbilgo Udalak, eta dokumentu horri ekarpenak aurkeztuko dizkio, sektorearen gairik gabeko antolatzea geldiarazteko eta merkataritza-eskaintza ez desorekatzeko.

2- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatzen diogu merkataritza-gune handien antolamenduari buruzko lurralde plan sektoriala behin-betiko onartu arte ez ditzala baimendu tramitazio-bidean dauden eskaerak. Izan ere, sektorea erregulatzeko prozedura martxan dagoen bitartean, guztiz kaltegarria da ekimen berriei bide ematea.

3- Usurbilgo Udala Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berria lantzen ari den honetan, merkataritza-guneei buruzko lanketa aipatutako irizpideekin modu koherentean garatuko du.

4- Erabaki honen berri helaraziko zaio Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.



Usurbilgo Udala

11.- MOZIOA: MARTXOAREN 8AN, EMAKUMEOK PLANTO!

Josune Estellak mozioa irakurri du.

Alkateak jakinarazi du udaleko emakume langileek batzarra egin zutela eta greba egitea erabaki dutela.

Josune Urkolak galdetu du ea emakumeek bakarrik.

Baietz erantzun zaio, deialdia horrela dela, eta Josune Estellak azaldu du gizona eskatzen zaiela egun horretan beste modu batean laguntzea eta babesa ematea. Jarraitu du esanez grebaren helburua dela ikustea benetan zein den emakumeon papera gizarte honetan.

Batzarkideek, 2018ko otsailaren 19ko Antolakuntza Batzordearen tratatu zen mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

laz, 70 herrialde baino gehiagotan, mugimendu feministak grebarako deia egin zien emakumeei, emakumeen aurkako indarkeria eta ezberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean. Bide horretatik, aurtengo martxoaren 8an, Euskal Herriko mugimendu feministak, sindikatuek eta hainbat eragile politikok bat egin dugu *Emakumeok Planto* aldarriarekin, emakumeak mendean hartzen eta zapaltzen dituen sistema kapitalista, arrazista eta hetereopatriarkala salatzeke. Izan ere, sistema honek sexuen arabera lan banaketa bultzatzen du, eta ezkutatu eta gutxietsi egiten ditu bai feminizatutako ogibideak bai bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutako lanak.

Euskal Herrian ere ez gaude horretatik salbu. Emakumeok bazterketa egoerak pairatzen ditugu esparru askotan. Hona hemen adibide batzuk:

- Sistema honek ez ditu gizonen eta emakumeen enpleguak modu berean baloratzen. Hala, emakumeok gizonen baino 7.500 euro gutxiago irabazten dugu urtean. Joera hori, gainera, areagotzen ari da urtez urte. Halaber, lanaldi partzialen % 76,3 emakumeei dagozkie, eta emakumeen % 27,6k aldi baterako kontratuak dituzte gaur egun. Gainera, feminizatutako lanbideak (% 59 zerbitzuen sektorean) prekarizatuenak dira. Datu horiek guztiek argi erakusten dute sistema honek eragotzi egiten duela emakumeok ekonomikoki burujabeak izatea: bigarren mailako soldatak izatera eta behin-behineko eta lanaldi partzialeko kontratuak izatera zigortzen gaitu.
- Sistema honek ikusezin egiten ditu emakumeok doan eta, batez ere, emakume etorkinek burutzen dituzten zaintza-lanak. Hego Euskal Herrian etxeko langileen % 87 atzeritarrak dira; horietatik % 46 etxe-barruko langileak dira; herenak baino



Usurbilgo Udala

gehiagok ez du lan kontraturik; % 80ak astean 60 orduetik gora egiten du lan; eta % 85ak dagokion gutxieneko soldata ere ez du jasotzen.

- Sistema honetan desberdintasunak egiturazkoak dira eta, gainera, sistematikoki ezartzen dira. Horri, gainera, emakumeok jasaten ditugun indarkeria mota guztiak gehitu behar zaizkio, izan indarkeria sexista, izan indarkeria arrazista edo klasista. Ez dago hilketa, sexu eraso edo jazarpenik gabeko egunik. Iaz 7 emakume hil zituzten eta bi adin txikiko. Horretaz gainera, bi egunetik behin salaketa bat jartzen da sexu erasoengatik. 2017an aurreko urtean baino % 36 salaketa gehiago jarri ziren.
- Sistema honek, gainera, estereotipo sexistak sistematikoki barreiatzen ditu, emakumeak sexu objektu gisara proiektatuz.
- Hezkuntza sistema bera ere, sistema patriarkala eta androzentrikoa da, izan ere, emakumeen ekarpen historikoak alboratzen ditu, merkatuaren premiak asetzera bideratutako gaiak eta edukiak hobesten ditu, eta genero-rolak auzitan ez ditu jartzen.
- Bazterketa orokor horren aurrea, bazterkeria eta berdintasun falta bereziki sufritzen duten euskal emakumeak nabarmendu nahi ditugu: ostalaritza edo merkataritzaren zerbitzuetan lan egiten duten emakumeak, nagusiki prekarizatutako alorrak baitira; aniztasun funtzionala duten emakumeak; preso dauden emakumeak; bizi osorako prekarietatera bultzatuak izaten ari diren emakume gazteak; bisexual, trans eta sexu, genero zein beste disidentzietakoak...

Egoera horri aurre egiteko, ezinbestekoa da emakumeok antolatzea eta sistema borrokatzea, eta pertsonak erdigunean jarriko dituen beste sistema sozioekonomiko baten alde egitea. Horretarako, ezinbestekoa da euskal herritarrok erabakitze eskubidea izatea, politika publiko guztietan genero-berdintasuna bermatzeko.

Horrenbestez, Usurbilgo Udaleko Udalbatzarrak honako puntu hau onartu du:

Martxoaren 8rako mugimendu feministak eta gehiengo sindikalak deitu duten grebarekin bat egitea, eta herriko emakumeak deitzea, greba deialdiarekin bat egitera, eta herritarrek bere osotasunean deitzen dituen antolatuko diren mobilizazio nagusietan parte hartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

12.- GALDERA-ESKAERAK.

Josune Estellak martxoaren 8a dela-eta antolatu diren ekintzen berri eman du.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:03etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.